

4. MAHASGINTZA ETA ENOLOGIA BOLETINA / 2022-ko UZTAILA IZURRITE ETA GAIXOTASUNAK

- **Internet bidezko asteroko oharrak :**
- http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=5505&Idioma=EU
- **Erantzungailu automatikoaren bidezko asteroko oharrak (Maiatzaren lehen astetik aurrera): 94-4066879**
- **Mahasgintza eta enología boletina**
- **SMS mezuak egoera berezietarako (gorrinen lehen mailako infekzioa, lehen orbanaren topaketa, txingorra...)**

Garai honetako egoera fenologikoetan (ilar tamaina eta mordoaren itxiera) gorrina eta zurinaren infekzio barriak gertatu daitezke mordoetan. Horrela babestuta mantendu beharko dira mahastiak patogeno hauen kontra batipat kondizio meteorologiko aproposak egoten badira hauen bilakaerarako.

Oraingo egoera fenologikoetan kontutan hartu beharko dira honako patogeno hauek:

GORRINA: azken asteetako euriteek, lanbroek eta tenperatura epelek hosto eta mordoetan infekzio sekundarioak errazten dituzte.

Orain, uztailaren lehenengo egunetan gauzelarik, mahastia mordoaren itxieran edo gertu dagoela eta tenperatura epelak direla, gaixotasun honen arriskua handia da. ADI EGON!!!, eguraldia eguzkitsua izan arren be goizetan garoa izaten da, eta holan dala bigarren mailako infekzioak maila altuan mantentzen dira.

Kontrola: **loraketa osteko egoera fenologikoetan** 2022ko Tratamendu Gidako **M2 taldeko fungizida sarkorrak** erabiltzea gomendatzen da. Produktu hauek 2 egunetan onddoa gelditzeko edo “stopante” izateko gaitasuna dute behin infekzioa gauzatu dala, dana dan, prebentiboki erabiltzen badira beraien eraginkortasuna altuagoa izan daiteke. Produktu hauen persistentzia 10-12 egun ingurukoa da, baina gaixotasunaren presioa oso altua eta landarearen hazkundera oso handia bada tratamenduen arteko tartea 2 egunetan murriztu beharko da.

OIDIOA/ ZURINA: tenperatura epelek eta hezetasun erlatibo altuek onddoaren bilakaera eragiten dute. Ilar tamaina – mordoaren itxiera egoera fenologikoak oso sentikorrak dira gaixotasun honekiko. Kondizio aproposak egotekotan edota gaixotasunaren lehen sintomak ikustekotan, erabili 2022ko Tratamendu Gidako **O taldeko zurinaren kontrako fungizidak**. Arreta berezia jarri aurreko urteetan kalteak izan diren partzeletan.

BOTRITISA: Babestu bereziki mordoak gaixotasun honekiko batipat hezetasun altuko egoera eta euriak badira. Garrantzitsua da mordoa itxi baino lehen tratamendua botatzea. Erabili 2022ko Tratamendu Gidako **B taldeko botritisaren kontrako fungizidak**.

MORDOAREN SITSA: Gure mahastietan ez da arazo handirik insekto honegaz. Tratamendua egin bakarrik mordoetan larbak ikusten badira. Azken astetan harrapaketak asko gutxitu egin dira.

ARMIARMA HORIA (*Eotetranychus carpini*) eta **ARMIARMA GORRIA** (*Panonychus ulmi*). Behar izanez gero, besteak beste akarizida hauexek erabiltzea gomendatzen dira:

Flash UM (%5 fenpiroximatoa): larbak, ninfak ta helduak kontrolaten dauz. Apolo 50, Acaristop...(Klorfentezina %50): gehien bat arrautzantzako, Vertimec, Ayra, Cal-ex..(Abamektina % 1,8): ninfak eta helduak

Batzuetan nahastu beharko dira bi, forma guztiak kontrolateko (arrautza, larba, ninfa eta heldua). Akariziden kasuan ere gai aktibo ezberdinak tartekatzearena garrantzitsua da.

LANDAKETA LANAK. **Udako kimaketa:** “hijueloak” eta adar zupatzaileak kendu eta kimen bakanketa egin. Mordoen inguruan dagozan hostoak kendu baina ez larregi eguzki kolpea ekiditeko. Belar mozketak sarri egin. Lan hauek landareen inguruan hezetasun altuko kondizioak ekidin eta **tratamenduen eragintasuna hobetzen dabez**.

LANDAREAREN ORGANUAK ONDO BUSTI BEHARKO DIRA MAKINERIA EGOKIA ETA ONDO KALIBRATUA ERABILIZ. TRATAMENDUA EGITERAKOAN GOGORATU ERABILTZEN DOGUN SALDA KOPURUA MAHASTIAN DOGUN LANDARETZAGAZ BAT ETORRI BEHAR DALA.